

Berbaz

Durandogek txakurren kontrako erasoez ohartarazi du, barruan orratzak dituzten saltxitxak agertu eta gero > 10



JAIK!
ZALDIBAR

Heteroarautik sexualitatea ulertzeko era aske baterantz bidaia egin dutenen bizipenak

Bost herritarrek heteroarautik irteteko prozesua zelan bizi izan zuten kontatu dute, eta gaur egungo egoera aztertu dute

Bihar, ekainaren 28agaz batera, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Testuinguru horretan, ekintza ugari egin dituzte asteon, Durangaldean, eta bihar manifestazioa egingo dute Bilbon. Durangaldeko bost herrita-

rrek norma lez ulertzen den heterosexualitatetik beste aukera batera egindako prozesuaz berba egin dute. Momentu horietan edukitako sentsazioak azaldu dituzte, eta aurrera begirakoaz ere hausnartu dute. > 3



Etxebakoentzako aterpeak atek zabalik

Caritasek etxerik ez dutenei bideratutako Etxepel aterpetxea zabaldu du Durangon, Intxaurrendoko Jesusen Mirabeen komentuan > 4



KOART 903
Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua ind., 9 - 6 behea - BERRIZ - Tel. / Faxa: 946 826 879

Durango > 4

Gerediagak eta Jaurilaritzak Durangoko Azokara bideratutako laguntza handitzea adostu dute

Abadiño > 9

Herriko familia bati laguntzeko kontzertu solidarioa uztailaren 4an

Elorrio > 6

Programazio zabala antolatu dute Elorrión, udaz gozatzeko

Zornotza > 8

Jan Alai pintxo txapelketan inoiz baino pintxo gehiago dastagai

Herririk herri

Musika, ludoteka eta film proiektzioak igerilekuan

Eguaztenean inauguratu zuten igerilekuko taberna

ATXONDO Joseba Derteano Apatako igerileku irekietako taberna eguaztenean ireki zuten. Kanpoaldean ipinitako karpa handi batean egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta luntxa eta musika izan ziren bertaratu zirentzat.

Mikel Allika eta Iñaki Ugarte-buru durangarrak, Gorka Azpitarte eskoriatzarra eta Jone Unzalu mañariarra dira aurreten tabernaren gidaritzat hartu dutenak. "Ilusio handiaz gaude, eta gauzak egiteko gogoaz", adierazi du Allikak; hamaika ideia dituzte udan igerilekuko giroa alaitzeko. Alde batetik, astean hiru bider gazteei zuzendutako ludoteka antolatuko dute askotariko jokoekin.

Horretaz gainera, hilean birritan musika kontzertuak antolatzeko asmoa dute: "Musika lasaia batzuetan, eta parrandazalea besteetan, denetarik ekarzen saiatuko gara". Film proiektzioak egitea ere aurreikusita dute. Ekimen hauek igerilekuaren kanpoaldean ipinitako karpan egingo dituzte, uda osoan egongo delako erabilgarri.

Bazkariak eta afariak

Igerilekuan bertan bazkaltzeko edo afaltzeko aukera ere eskainiko dute; otartekoak (begetarianoak ere bai), plater konbinatuak, hanburgesak, razioak... egongo dira. Noizean behin menu bereziak eskaintzeko asmoa ere badutela adierazi dute.

Ardi mozte desafioa Goita auzoko jaietan

Urkiola makinagaz arituko da, eta Urien eskuz

MALLABIA Jone Guenetxea Astelenean eman zioten hasiera Goita auzoko San Joan jaiei, txopoa jasota. Martitzenerako meza eta briska antolatu zituzten.

Asteburuan egitarauak jarraipena izango du. Gaur, 22:00etan, auzo afarian bilduko dira. Ondoren, Xabier Amurizak *Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina* emanaldia eskainiko du.

Zapatuan, 18:00etan, txinga eroate lehiaketa prestatuko dute. 20:00etan, berriz, tortilla txapelketan lehiatuko dira. Gaueko 22:00etan auzoko gazteek txapelketa jokatuko dute.

Domekarako egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizeko 11:00etan meza egongo da. Os-

tean, Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Herri kirolak eta motozerra erakustaldia izango dira ikusgai. Arratsaldeko 17:00etan umeek jolasekin gozatzeko aukera izango dute. Ondoren, ardi mozte

Gaur, 22:00etan, Xabier Amurizak *'Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina'* emanaldia eskainiko du

desafioa jokatuko dute. Mikel Urkiola makinagaz lehiatuko da, eta Aitor Urien eskuz. Txokolatadagaz eta errifan zozketagaz amaituko dira jaiak.



Iaz Lehior Elorriaga zaldibartarrak irabazi zuen argazki lehiaketa.

'Durangaldea iruditan' egutegiko argazki lehiaketa martxan da

ANBOTOk lantzen dituen hamahiru herrien argazkiak aurkeztu beharko dira

DURANGALDEA A. Ugalde ANBOTOk 2014ko egutegirako argazki lehiaketa abiatu du. Parte-hartzaileek Durangaldeko hamairu herritako argazkiak aurkeztu beharko dituzte irailaren 30a baino lehen. Argazkirik onena aurkeztu duenak 500 euroko saria lortuko du.

Egutegia Durangaldeko hamairu herriren argazkiekin osatuko da; hilabete bakoitzean herri bateko argazkia joango da, eta hamahirugarrena egutegiaren azalean. Parte-hartzaileek

herri bakoitzeko argazki bana aurkeztu beharko dute; Abadiñoko, Atxondoko, Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Garaiko, Iurretako, Izurtzako, Mallabiko, Mañariko, Otxandio, Zaldibarko eta Zornotzako argazkiak.

Argazkiak kamera digital batez egin, eta jpg formatuan bidali beharko dira, irailaren 30a baino lehen. Argazkiek, gutxienez, 4.000x2.800 pixeleko tamaina izan behar dute. Lan originalak aurkeztu beharko dira, eta saritu bakoak izan beharko dute.

Argazkiei ukituak egin ahalko zaizkie, baina ezingo da gehitu edo kendu euren jatorrizko osaraldatzen duen elementurik.

Zelan eta nora bidali

Argazkiak e-mail bidez edo CD batean aurkeztu daitezke helbide hauetan: astekaria@anboto.org edo ANBOTO astekaria, Bixente Kapanaga, 9, 48215 Iurreta. Argazkiekin batera izen-abizenak, argazki bakoitzaren izena, NA zenbakia, helbidea eta adina zehaztu beharko dira.

Gasteizerako autobusaren erabiltzaileen mozioa

Erabiltzaileak Durangoko udalbatzarrean izan dira

DURANGALDEA M.O. Durangotik Gasteizerako autobusaren erabiltzaileek mozio bat aurkeztu zuten martitzenean, Durangoko udalbatzarrean. Alkateari arazoa bere gain hartzea eskatu zioten, eta gaiagaz Bizkaiko Foru Aldun-

dira jotzea ere bai. Gainera, esleipen berrian zerbitzu duina ezartzea exijitu zuten. Besteak beste, autobusa orduro egotea, baldintza teknikoak bermatzea, prezioetan irizpide sozialak kontuan hartzea eta autobusa Gasteizko campuseraino

heltzea. EAJk mozioa babestu zuen, eta Aitziber Irigoras alkateak adierazi zuen dagoeneko egin diela batzarrerako gonbidapena Bizkaiko eta Arabako aldundiei, eta autobusa pasatzen den gainontzeko herrietako ordezkariari. Uztailaren 1ean izango da batzarra, Durangon.

Eider Uribek (Bildu) azaldu zuen berak dakiela Bilduko alkateak agertuko direla. Irigoras kritikatu zuen, duela hilabete batzuk ez zuelako lan bateraturako Bilduren eskaintza onartu.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2014ko ekainaren 27a,
12. urtea - 551. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Heteroarautik irten, eta sexualitatea era askean bizitzeko esperientziak

Zenbait herritarrek heteroarautik kanpoko esperientziak kontatu dituzte, baita hausnarketa egin ere

DURANGALDEA M. Onaindia Lesbiana, Gay, Transexual, Queer eta Bisexualen Nazioarteko Eguna da bihar, ekainak 28. Kolektibo horretako kideen eskubideak eta aldarrikapenak kaleratzeko hitzordua izaten da, eta aurten ere horrela egingo du-

te Bilbon, 20:00etan, Moyua plazan hasiko den manifestazioan. Durangaldean ere ekintza ugari egingo dituzte aste honetan EHGAMEk eta zenbait udalek, erakusketak eta bideoforumak, adibidez. Baina, egun horretako zurrumbilotik harago, egunero-

ko bizipenetan murgildu gura izan du ANBOTOk.

Arauak, sinesmenak, moralak... Hainbat faktoreren eraginez, oraindik ere, heterosexualitatea da bakarrik normalizat hartzen dena, gizonaren eta emakumearen artekoa. Euren

arteko sexu harremanak, erreproduktzioagaz lotutako praktika, bizi eredua... Baina heteroarau horretatik irteten den jendea badago.

Sentsazioa eta hausnarketa Jarraian agertzen diren herri-

tarrek prozesu hori zelakoa izan zen kontatu dute, eta sortutako sentsazioak gogoratu dituzte. Gainera, gaur egun egoera zelan ikusten duten ere hausnartu dute. Azken urteetan normalizazioarako pausoak eman eta eboluzio bat egon arren, bistakoa da, euren diotenez, egoera hobetzeko lan egin beharra dagoela.

Sailkapen edo etiketen gainetik, sexualitatea bizitzeko moduaren inguruko eztabaida kalean dago; Bilgune Feministak ere lanketa horretan dihardu, adibidez.



Mireia Delgado

Durango, irakaslea

Arautik irteteko prozesua? Zelako galdera zaila. Arautik ateratzea zaila da, dena dago hain loturik beste norabide bat hartzeko... Baina interesgarria litzateke araua %100ean nork betetzen duen galdetzea. Niretzat ikaskuntza ikaragarria izan da hau gazte-gaztea nintzenetik.

Jaiotzen garen mundua, hererosexualaz gain, heterosexualizatzailea da. Desio eta praktika heterosexualak barneratzeko trikimailuz beteta dago. Perfumeen iragarkiak, adibidez, horren isla dira. Gure desio sekretuenak ere faktoria berean sortu ziren!

Bilgune Feministatik gaiari dimentsio politikoa eman gura diogu. Ez dira arlo pribatuko gauzak, sistema egituratzen dute. Praktika lesbianoaz harago doa, noski. Nahiko genuke jendea konturatzea bere burua, praktikak eta desioak testuinguru baten arabera direla, eta denok daukagu aldatzeko gaitasuna. Haritik tira, eta gozatu!

25 urte bete arte ezkutuan eduki nuen. 14-15 urte gaz jolasean hasten zarela-eta, konturatzen zara nondik nora doan kontua. Matienan bizi nintzen, eta kasu bakarra ezagutzen nuen, mutil batena. Bere berri izan nuen pintada bat agertu zelako horma batean, "Marikoiak kanpora", eta bere izena alboan. Nire lehenengo sustoa izan zen. 25 urte betetzean, burua lehertzeaz neukan, eta kanpora joatea erabaki nuen. Gezur handi bat eraikita neukan hemen. Zortzi hilabete egon nintzen Italian, eta askatu egin nintzen. Lehen momentutik jendeagaz zintzo jokatzeko lan lez hartu nuen. Hona etortzean hasi zen nire benetako bidaia.

Askok lagundu dit, borroka politikoa egin ez arren, ezer ezkututzen ez duen jendea ikusteak. Matienan bizitzeko zenbat eskertuko nukeen baten bat egunkarian agertu izana homosexuala zela esaten.

Isaak Erdoiza

Abadiño, dantzaria



Joseba Azkarraga

Abadiño, soziologoa

Durangoko San Frantzisko kaleko pisu hartan sei neska-mutil bildu, eta iraultzatxoabi atzetzea erabaki genuen 1990eko hamarraldi aztoratuan. Halaxe hasi zen EHGA-Durangaldea. Men egin edo ingurune naturaletik ospa egin beharrean, herrian geratu, antolatuta, eta bertakoa moldatzen saiatu. Ateneoko txosna gogoangarria Elorrioren, gutunak *Erazera*, elkarretaratzeak 28an...

Esker ona geratu zait. Aitortza, maitasuna eta onepen aktiboa ezagutu ditut familian, lagunartean, kaleko giroan, udalerrian, bikotekidearen sendian, euskal herrietan. Ez da gutxietekoa herri honek sexu askatasunaren alorrean agertu duen malgutasun kulturala, adeitasuna, onepena. Denona da garaipena, kontu transbertsal horietakoa da. Ez, bidea ez da amaitu, ez da hori. Baina egi zu keinu zakar bat, eta euskal herrietan bost aterako zaizkizu kontrako norabidean.

Markatutako bidea jarraitzea baino, beste bidea mila bider gehiago desio nuela konturatu nintzen, izan behar zaren eta benetan nahi duzunaren arteko gatazka horretan. Bi horien arteko distantzia esanguratsua izan arren, norberak markatu behar ditu erritmoak, eta ematen den egoera baloratu. Familia, lagun edo ezezagunengana jotzeko formula desberdinak erabili arren, azkenean konturatzen zara pausoa ematea dela garrantzizkoena. Nik zeukana baino garrantzi handiagoa eman nion.

Beste era bateko harremanak izateak bizitzan beste jarrera bat izatera bultzatzen zaitu, eta denboragaz ematen dizun askatasun sentsazioa polita da, dibertigarria oso.

Heteroarauetatik kanpo dauden aukera guztiak ukatzen diren bitartean, egoerak ez du aurrera egingo. Gauza asko dago egiteko, eta eguneroko borroka nahitaezkoa da.

Judit Fernandez

Zaldibar, argazkilaria



Markel Ganboa

Durango, langabetua

Nirea prozesu natural bat izan zen. Kontzientzia sexuala garatzen hasterakoan banekien zer gura nuen. Baina gizartean heteronorma hori zegoen finkatuta, eta ez nintzen esatera ausartzen. Gero, "zuri zer neska gustatzen zaizu?" galdetzen zidatenean, jendeak ikusten zuen galdera aldatzen hasi behar zela.

Askotan eliza kritikatzeko dugu, baina gu eliza baino txarragoak gara. Bi neskei egiten zaien lehen galdera da ea zelan egiten duten ohean, sexua sarketagaz ulertzen dutelako. Era berean, arraro egiten zait jendeari entzutea neska hau neska batez egon zela, gero mutil batez, eta orain neska batez dagoela berriz. Jende asko hartzen ari den jarrera natural bat hori da.

Bestalde, gaur egungo egoerara heldu gara militantzian lana egin delako. Aurrera begira, hezkuntza garrantzitsua da; gurasoek ere horretaz berba egin behar dute.

Elizalde igerilekuen irekitzea

UZTAILAK 3 12:00etan



Elorrioko udala



BPXport
kirol zerbitzuak
www.bpxport.es



PREZIOAK	
1. Orokorrak	
Familia*	100€
Familia ugaria*	90€
Titular jubilatuaren familia*	90€
Guraso bakarreko familia*	90€
Banakakoa	65€
Banakakoa 65 urtetik gora	60€
2. Udal kiroldegiko abonu integrala	
Familia*	80€
Familia ugaria*	70€
Titular jubilatuaren familia*	70€
Guraso bakarreko familia*	70€
Banakakoa	50€
Banakakoa 65 urtetik gora	45€
*18 urte bitarteko seme-alabak	
Leihatila	
18 urtetik gora	6€
3-18 urte eta 65 urtetik gora	4€
6 hilabete-3 urte bitartekoak	2€
0-6 hilabete bitartekoak	Doan
Inskripzioak: Kiroldegian	
946 821 027 - elorrio@bpxport.es	

Etxepel zabaldu dute, etxebakoentzako laguntza etxea

Atzo aurkeztu zuten etxebakoentzako proiektua

DURANGO Markel Onaindia Beroa, babesa, atsedena... Caritaseko Carlos Bargosen berbetan, etxeagaz lotutako sentsazio horiek guztiak eskaini gura dizkiete etxebakoei Intxaurrenondon zabaldu duten zentro berrian. Etxepel izenagaz bataiatu dute etxebakoak gizarteratzeko proiektu berria, eta atzo egin zuten aurkezpena.

Durangoako Caritas-Tabira elkarteak Esther Bilbaok kontatu zuen nondik datorren egitasmoa: "Aspalditik sentitzen

genuen etxebakoei laguntzeko premia, baina ezin genuen". Duela urte bi forma ematen hasi, eta Intxaurrenondoko Jesusen Mirabeen komentutik etorri zitzaizen notizia: mojak etxetik joan, eta hamar urterako utzi zioten Caritasi. Elkartean talde bat sortu dute Etxepel gidatzeko, eta Bilbaoren arabera gizarte eragileak inplikatzeko gura dute.

Eguneko zentroa, gaueko pentsioa eta hiru etxe autonomo edukiko ditu Etxepelek. Guztira, 40 lagunentzako lekua.



Egongela, sukaldia eta beste zenbait zerbitzu dauzkate Etxepelen.

Oraindik, baina, eguneko zentroa bakarrik dago martxan. Etxebakoek zerbitzu ugari dute bertan: jatekoa, higieena, atsedeen hartzeko egongelak, ortuan lan egiteko aukera, irteerak... Pentsiorako eta etxeetarako

finantziak beharko dute; momentuz, Caritas Bizkaia, Tabira-Durango parrokiako komunitatea, enpresek eta partikularrek finantzatzen dute.

Jose Agustin Maiz Andra Mariko parrokiak azaldu zuen

proiektuak alderdi pastoral eta eraldatzailea ere badauzkala. Eliza eta gizarte aldatzea daukate helburuen artean: "Gizarte honek ez gaitu konbentzitzen; justizian oinarritutako gizarte bat nahi dugu".

Txosnen kokapena argitzeko eskatu diote udalari

DURANGO Jone Guenetxea Durangoako Pantxika txosnen elkarteak aurtengo San Faustotan txosnagunearen kokapena zein izango den jakin gura duela azaldu du prentsa oharrean. Gaineratu duenez, urtarrean Durangoako Udalari eskatu zion ekainerako kokapena zein izango zen argitzea. "Hainbat bilera eskatu dizkiogu udalari, eta, momentuz, ez dugu erantzunik jaso".

Uda tarteko, jaiak begi-bistan daudela diote txosnaguneko kideek. "Kalitatezko jaiak antolatu ahal izateko" udalari bilera batera dei dituzten eta bere erantzunaren berri eman diezaioten eskatzen dute. Kultur ekintzak antolatzeaz gainera, txosnetako ordezkariak diotenez, baimenak bideratu eta antolaketa lanak egin behar dituzte, kokapenera egokitzeko: "Urtero txosnak lekuz aldatzen ibili beharrak horrelako egoeretara garamatza". Era berean, Durangoako txosnaguneko leku finko bat izan beharko lukeela uste dute.

Plateruenak gogoetaren ondorioak aurkeztuko ditu

Platerueneko aurkezpena eguaztenean izango da

DURANGO M.O. Plateruena Kafe Antzokia gogoeta prozesu batean murgilduta egon da aurtengo ikasturtean, proiektua sasoi berrietara egokitzeko asmoz. Hamar urte dira kultur gune euskaltzale eta herritarra jaio zenetik, eta arduradunek hausnartzeko eta Plateruena berridazteko beharra ikusi zuten. 2013ko azaroan *Zilarberritzen* izeneko partaidetza prozesuaren aurkezpena egin zuten, eta geroztik hainbat eztatanda saio garatu dituzte herritarrekin batera. Iritziak jasota, ondorioak atera dituzte, eta jendaurrean aurkeztuko dituzte datorren eguaztenean, uztailaren 2an. 19:00etan izango da aurkezpena, Plateruenean bertan.

Kultur gune euskaltzale eta herritarra izateko norabidean sakondu dute gogoetako partaideek. Prozesua EHUko Parte Hartuz sailekoek gidatu dute, eta eurak izan dira eztatandetan landutakoak biribiltzeko ardura-dunak. Azaroko aurkezpenean bertan iritzia emateko auke-

ra eduki zuten bertaratutako 150 lagunek, eta hori izan zen prozesurako oinarrietako bat. Gainera, Durangoako kolektibo eta kultur sortzaile ugariak ere hartu-emanak egin zituzten azarotik otsailera bitartean.

Saretik komunikaziora

Horren ostean eztatanda zabalak hasi ziren. Martxoan sarea eta elkartegintza aztertu zituzten, apirilean Plateruenean kudeaketaz jardun zuten, eta maiatzean komunikazioa izan zuten berba-gai. Eztabaidez gainera, tailerrak eta berbaldiak ere antolatu dituzte hilabeteotan, prozesuaren osagarri lez. Eguaztenean jakinaraziko dute zein izan den azken emaitza.

2013ko azaroan 'Zilarberritzen' izeneko partaidetza prozesuaren aurkezpena egin zuten

Durangoako Azokari laguntza handituko dio Jaurlaritzak

DURANGO J.G. Gerediaga Elkartek eta Eusko Jaurlaritzak Durangoako Azokara bideratutako diru-laguntza handitzea adostu dute. Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek baieztatu du 80.000 eurotik 120.000 eurora handituko dutela laguntza. Mujikak gaineratu duenez, finantziak horren egonkortasunari buruz ere hitz egin zuten batzarrean. "Aurtengo diru kopurua finantze inportatearen zen, jakina; baina Durangoako Azokari begira gairik garrantzitsuenak, behar bada, egonkortasunari dagokion delako uste dut. Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak gai horren inguruan bere konpromisoa azaldu digu: 2015eko Jaurlaritzaren aurrekontuetan partida handiago bat ezarriko dutela adierazi digu". Gerediagaren iritziz, Jaurlaritzaren erabakia aurrerapauso positiboa da, diru-laguntzen kopurua handitu delako, eta laguntza hori ekainean ziurtatu dutelako ere bai.

Helduen Hezkuntzako murrizketen kontra daude

DURANGO M.O. PSE-EEk Helduen Hezkuntzako Ikastetxeagaz lotura daukan mozioa aurkeztu zuen martitzeneko udalbatzarrean. Eusko Jaurlaritzak iragarritako murrizketek eragina izango dutela kritikatu zuen: langile taldea %35 txikituko du. Ondorioz, sozialisten ustez, prestakuntza eskaintza ere kaltetuko da. Durangoako zentroari dagokionez, ehunka herritar ikasteko aukera barik geratu ahal direla ohartarazi dute, eskualde osoa hartzen duelako. Kalte handiena etorkinek jasoko dutela diote.

Mozioak Bilduren, Aralarren eta PPren babesa jaso zuen, eta euren proposamen batzuk ere barneratu ziren azkeneko testuan. EAJren gobernu taldea bakarrik agertu zen kontra.

Dani Maeztuk (Aralar) banketxei eta alderdiei bota zien egoeraren errua: "Ez dugu ulertzen ikasleek ordaindu behar izatea finantza erakundeek kasta politikoaren laguntzagaz sortutako krisia".

a-metz

Gune paregabe guztiek dute aurrekontu bat, eta aurrekontu guztiek dute gune paregabe bat.

Ibaizabal, 3A - Durango - www.a-metz.com - 946 818 481

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

%20ko DESKONTUA, UZTAIA ETA ABUZTUAN

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKARITZA

ZURE txokoa

688 861 975
info@zuretxokoa.com

www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 beheko, 5. esk. - 48.200 Durango - BIZKAIA

Gerediaga-Elorrio Autobidea



*Durangaldea
garatuz*

Autobide berriak segurtasun eta aurrezpen
gehiago ekarriko du, enpresen jarduerari
lagunduko dio eta hiriguneetako trafiko astuna,
zarata eta kutsadura murriztuko ditu.

Hamaika osagai Elorrion udaz gozatzeko prestatutako errezetan

Elorrioko Udak egitaraua aurkeztu dute udal eta kultur arduradunek

ELORRIO Markel Onaindia Elorrioko Udak egitaraua aurkeztu zuten joan zen barikuan udaleko eta kultur esparruko ordezkariak. Musika, bisita gidatuak, abentura eta jaiak izango dira kultur eskaintzaren zutabe. Ana Otadui alkateak eta Aitor Iriarte Musikaireko arduradunak eman zuten programa-

zioaren berri. Elorriarrek eta turistek uda sasoian kulturaz gozatzeko eta herria ezagutzeko eskaintza edukiko dute, eta errezeta horretan uztailearen 4an hasiko den Musikaire jaialdia izango da osagai nagusia.

Alkateak azaldu du Elorrio "herri bizia, dinamikoa eta moderno" dela, baina baita ohitu-

rak zaintzen jakin izan duena ere. Udako eskaintzak turismoa indartzeko balioko du, Argiñetara eta Mendrakako mahastietara egingo diren bisitak horren adibide. Gainera, abenturez gozatzeko aukera ere emango dute aurten. Jinkanak, ibilaldiak, Besaideko kobara bisita eta eskalada egongo dira aben-



Programaren arduradunak joan zen barikuko aurkezpenean.

Nobedade lez, Trikitilari Gazteen Txapelketa jokatu dute hurrengo barikuan bertan

turazaleentzat. Irteeretan edo abentura ekintzetan parte hartu gura dutenek www.elorrio.net atarian topatuko dute informazioa, baita egitarau osoa ere.

Bestalde, uztailearen 4an Berrio Otxoa eguna ospatuko dute elorriarrek, eta, nobedade lez, Trikitilari Gazteen Txapelketa jokatu dute bariku horretan bertan.

Manolo Martinezen bisita jaso du Kainaberak

Kainabera Gobernuz Kanpoko Elkartearen (GKE) sorreran zerikusi zuzena izan zuen Martinezek



Kainaberako kideak, Kolonbiatik etorritako bisitagaz.

ELORRIO Amaia Ugalde. Bogotara (Kolonbia) duela berrogei urte heldu zen Manolo Martínez, Elorrion irakasle izandako marianista. Elorrioko bere ikasle ohiekin hartu-eman mantendu zuen Martinezek, eta horrela sortu zen Kainabera GKEa duela hemezortzi urte, Bogotán proiektu batzuk aurrera ateratzen laguntzeko. Lankidetzan mantendu dute hurrezkerok, eta Bogotara joandako elorriarrak hainbat izan dira. Pasa den astean Manolo Martinezen bisita jaso zuten.

Ciudad Bolívarren bizi da Martínez, Bogotá hiritik mendialdera zabaltzen den eremuan. Parrokiako arduraduna da. Bertan, gerratik eta pobreziatik desplazatutako herritarrak bizi dira. Auzoetako jendeagaz batera, Martínez hainbat egitasmotan dabil buru-belarri. Haurtzaindegia eta jantokia izango dituen etxe sozial bat, eta ezgaitasunen bat duten pertsonak eta pertsona nagusiak artatzeko egitasmoak daude tartean. Kainabera anboto.orgko komunitatean eman du bisitaren berri.

GAILU ELEKTRONIKOAK vs. IRAKURKETA (II)

Egungo gazteek egonarri oso txikia dute, itxaron beharrak etsipena sorrarazten die eta edozein gaitan aldi bereko erantzunak nahi izaten dituzte. Ez dira arazo baten irtenbidea aurkitze asmoz ekiten jarraitzeko gauza; edozein ustekabeko arazok irtenbideak aurkitzeari ekiten jarraitzeko jarduera bertan behera uztera daramatza.

Gazteen artean gailu elektronikoa erabiltzeko nagusituz doan gero eta gehiagoko joera nabarmenaren eraginez "irudiaren belaunaldi" baten aurrean gaudela esan dezakegu, hau da, idatzitakoa baino irudia dekodifikatzeko trebetasun handiagoa duten gazteen belaunaldian aurrean gaude.

Gogoeta sakon eta serioa egiteko gaia dugu hezkuntza sistemak eta, berezitasunez, hezkuntza prozesuak ikaslearen "irakurketa-idazketa"ri buruzko trebetasuna "bizkar hezurtzat" hartzen duela esaten digun arren, ikastetxeetatik gero eta gazte "ez irakurle" gehiago sortzen direla ikustea. Benetan tamalgarria, baina oraindik inork irtenbiderik eman ez dion gaia dugu. Irakasleak aipatu errealtate hori ezagun ez izatean edota ezagutu nahi ez izatean, bere

lana frustrazioz eta atsekabez garatzen du, eta irakasleak bere ahaleginik eta borondaterik hoberenak ezarri arren, ikasleak ez du irakasleak esandako era edota zuzentasunez erantzuten.

Irakasleek hainbatetan ikaslea apatikotzat, motibaziorik gabeko, alfertzat etab. jotzen dute eta ikaslearentzako irakaslea gogaikarria, monotonoa, jasangaitza eta aspergarria izaten da. Egoera horrek sarritan batak bestearenganako antipatia korrontea sorrarazten du. Azken baten ikasle/irakaslearen trebetasunaren ezagutzarik ezak ikaslearen sorrarazitako komunikazio gabeziaren arazo larri batera daramatza irakaslea eta ikaslea.

Irakasle-ikaslearen arteko komunikazioan etengabeko interferentziak zergatik sortzen

diren jakitea ez da gauza erraza izaten baina edozein kasutan ez lirateke aipatu egoera horiek eman behar.

Jarduera intelektualean irudiak duen lehentasun eta nagusitasunak sorrarazitako beste xehetasun aipagarrietariko bat, komunikabide bakoitzak informazio mota desberdina eskaintzen duela ikustea dugu. Irakurketak informazio jakina, zehatza eskaintzen duen heinean, irudiak informazio esplizitua ematen digu.

Adibidez: irakurleak eleberri bat irakurtzeari ekiten dionean, edukiaren erdia idazleak ematen digun arren, beste erdia irakurleak erantzen du, pertsonaiak, egoerak, arazoak, argudioa etab., bere buruan ikusi eta irudikatzen dituen. Aldiz, irudiak ematen duen informazioak ez dio ikuslearen imajinarioari inolako interpretaziorik egiteko aukerarik txikiena ere ematen.

Aurrekoan aipatutako irakurketaren inguruko krisiari buruzko gogoeta eta ondorioetarik batzuk adierazi eta gero, irakurketari dagokion distira, irakurketaren garrantzia aldarrikatu eta sustatze aldera eta batez ere gazteengan irakurketa-kultura ezarri, areagotu eta irakurzaletasuna sortzeko helduok irakurketarekiko dugun jarrera itxurati eta tolesduna errotik aldatu behar dugu. Pertsona helduak [gutxi irakurtzen baitute] ezin die gazteei irakurketak garrantzi handia duenaren mezurik adierazi, helduak eurak irakurle amorratu eta eragin-korrek ez direnean. Nagusiok, irakurketari, ematen dioguna baino balio askoz handi eta garrantzitsuagoa eman behar dugu, irakur-ekintza ikas-prozesua optimizatzeko ezinbesteko jokaera positibotzat joz.

Ortografia akatsak, sintaxia okerra, hiztegi-urritasuna,

arreta maila txikia eta ideiak zehaztasun eta zorroztasun osoz adierazteko hizkuntza mailako baliabide murriztua, besteak beste, gutxi irakurri izanaren ezaugarri nabarmen besterik ez dira. Ikasketa prozesua, funtsean, irakurketa prozesua da eta, ondorioz, txarto irakurtzen duenak txarto ikasten du.

Ume, gazte eta nerabeek nagusien jokaerak eredugarri izaten dituzte. Ikusten dutenetik ikasten dute eta ez nagusiok egiteko esaten diegunetik. Ondorioz, ez da jarraibide egokia guraso batzuk telebistaren aurrean lasai eta patxadatsu eserita egonik bere seme-alabei irakur dezatela adieraztera letorkeen "mezu bikoitza" adieraztea ematea. Inori ezin irakatsi diezaiokegu aurretiaz ikasi ez dugunik edota baitaratuta ez daukagun ohiturarik.

Gorka Aurre - **PRAKAGORRI**
prakagorri@prakagorri.es

PRAKAGORRI IKASTARO TRINKOAK

UZTAILA & ABUZTUA

MATRIKULA
UZTAILAREN 4ra arte

ULERMEN JASOKO IRAKURKETA IKAS-METODOAK [11 - 15 URTE]

Uztailak 1 - Uztailak 15
Uztailak 16 - Uztailak 30
Uztailak 1 - Uztailak 30
Abuztuak 1 - Abuztuak 15

Uztailak 1 - Uztailak 15
Uztailak 16 - Uztailak 30
Uztailak 1 - Uztailak 30
Abuztuak 1 - Abuztuak 15

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO

PRAKAGORRI
Reading skills
94 491 57 63
DURANGO
Barrenkalea, 20
prakagorri@prakagorri.es

EMAITZA HARRIGARRIAK !



JATETXE GIDA

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO
Tel.: 946 218 122
Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077
Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246
Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4
Tel.: 946 030 300
Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com
Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi
personarentzako menua zozkatuko dugu

**Zelan deitzen da Caritasek Intxaurrondon
zabaltu duen aterpetxea?**

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

**ZORTE
ON!**

Jan Alai txapelketan inoiz baino pintxo gehiago

Aurten 56 taberna eta jatetxe dabilta parte hartzen pintxo txapelketan, iaz baino hemeretzi gehiago

ZORNOTZA Joseba Derteano Eguaztenean hasi zen Jan Alai pintxo txapelketaren hirugarren aldia, eta domekara arte iraungo du. 56 taberna eta jatetxe dabilta parte hartzen, iaz baino hemeretzi gehiago.

Hiru atal sarituko dituzte: epaimahaiak aukeratutako pintxorik onena edo herritzaileen, herritarrek aukeratutako pintxorik onena, eta zerbitzari profesionalena. Pintxorik onenarentzako saria bikoiztu egin dute: iaz 500 euro ziren, eta aurten 1.000 euro dira. Nobedade nagusietako bat da epaimahai sekretua izango dela. Orain arte ostalariek bazekiten epaimahai nork osatzen zuen eta noiz etorriko zen, baina aurten

ez dute abantaila hori izango. Herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera; pintxoak dastatuz ez ezik, baita euren ustez onena izan denaren alde bozkatzuz ere. Tabernak eta jatetxeak sei gunetan daude banatuta, eta bozkatu ahal izateko, gutxienez, gune bakoitzeko hiru pintxo (hemezortzi guztira) probatu eta bozkatu behar dira. Pintxo bakoitzak 1,3 euro balio du.

Lehiaketako pintxoak eguerdietan eta iluntze-gauetan dastatu ahalko dira: barikuan eta zapatuan, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara, eta, domekan, 12:00etatik 15:00etara. Boto denak kontatuta, domeka arratsaldean egingo dute sari banaketa Zelaia Zentroan.



Zubi Ondok txapelketara aurkeztu duen pintxoak.

Argazki digitalen lehiaketara lanak irailera arte bidali ahal izango dira

ZALDIBAR Itsaso Esteban Udal liburutegiak antolatu du argazki digitalen lehiaketaren laugarren edizioa. Uztailaren 1etik irailaren 15era arte aurkeztu ahalko dira lanak lehiaketara: liburutegia@zaldibar.org helbidera bidali behar dira

argazkiak. Mezuan argazkilaria izen-abizenak, bizilekua, telefonoa eta argazkiaren izenburua azaldu beharko dituzte parte-hartzaileek.

Bi sari banatuko dituzte argazki lehiaketan: 100 euroko lehenengoa eta 50eko bigarrena.

Opor sasoian argazkiak egiteko joera kontuan hartuta, 2011. urtean antolatu zuten argazki digitalen lehenengo edizioa. Iaz, esaterako, Leihor Elorriaga eta Delfin Zubizarreta argazkizaleak izan ziren irabazleak.

Lehenagoko eta gaur egungo 200 dantzari batu dira Iremiñeren jaian

Jose Alberto Narbaizari eskerrak eman dizkiote



Berrizburu futbol zelaian egin zuten dantza erakustaldia.

BERRIZ Amaia Ugalde

Pasa den domekan lehenagoko eta oraingo dantzariak batu ziren Iremiñe dantza taldearen urteurren jaian. Berrehun bat dantzari dantza emanaldi berezia egin zuten Berrizburu futbol zelaian. Ekitaldia, gainera, dantza taldean hasieratik dabilen Jose Alberto Narbaizari esker ona emateko aprobetxatu dute.

45. urteurren jaian, guztira mutilen hamaika talde, nesken bederatzi, eta 30-40 ume batu

ziren. Domekan, dantza emanaldiaren ostean, herri bazkarian batu ziren kiroldegian.

1969ko San Joan jaiak

Iremiñe dantza taldeak lehen dantza emanaldia 1969ko sanjoanetan egin zuen, San Joan ermitaren alboan. Ordutik hona ehunka dantzari igaro dira dantza taldeak. 25. urtemugan aurtengoaren antzeko jaia egin zuten, eta taldearen historia liburu batean batu zuten.

“Herriko beste bat bagina bezala tratatu gaituzte”

IZURTZA Markel Onaindia

“Pertsonalki sinestezina izan da. Herriko beste bat bagina bezala tratatu gaituzte izurtzarrek”. Asier Garcia adin txiki-koentzako aterpetzeko begiralea izan da, eta emozioz egin du berba bizitako esperientziak. Astelehenean, San Joan suaren jaian, eskerrak eman gura izan zizkieten herritarrei, urteotan izandako tratuatik. Udalari oroigarri bat eman zioten.

Garcia esanetan, ez da erraza bizitakoa deskribatzea. “Lana zure bizitza da. Denbora gehiago zaude gazteekin zure

familiagaz baino”. Zentroan hamar gazte egon dira azkenaldian, eta hilabete amaieran itxiko dute, kopuruak behera egin duelako. Gazteek badute beste leku bat, baina arazoa begiraleei sortu zaie, langabeziara doaz eta. Aldundiak azpikontratatu egon dira hamar begiraleak.

Oraingoz gainera, aurreko urteetan ere egondako gazteak hurreratu ziren astelehenean egindako jaira. 17 urte dauzka Brahim Manzouk, eta orain sukaldaritza praktikak egiten dabil: “Esperientzia onerako izan da”. Bi urte eta erdi egin ditu Izurtzan.

Herrian gizarteratzen saiatu dira gazteak, herriko jaian eta herrian antolatutako ekintzetan parte hartuta, baina orain agur esateko ordua heldu zaie.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



eDurango

Udalbatzako azken osoko bilkuran Durangarrek euren Udalagaz harreman elektronikoak ezarri ahal izateko prozesua abian jarri genduan. Horretarako, udalbatzarrak aho batez onartu eban Udal araudia. Alderdikeria guztien gainetik, talde guztiek aintzat hartu izan dogu Administrazio elektronikoa ezartzeko helburua onuragarria dala herritarrarentzat. Egia da, izan be, araudiaren testua oso teknikoa dala, hain zuzen, zehaztasun administratibo zein informatikoak nahiko korapilatsuak baitira. Alabaina, Udaleko teknikari adituen iritzia kontuan hartu, eta ontzat eman izan da kasu honetan. Kasu honetan? Eta gainerakoetan zer? Ba, zoritxarrez, oposizioko talde batzuen arabera, Udal teknikarien profesionaltasuna kolokan dago. Zer dala eta horrenbesteko eraso Udaleko langileen aurka? Ba, teknikariaren iritzia norberaren gustukoa ez danean (eta ezker abertzale jatorrizko zein eratorritako ordezkari sarritan gertatzen jake), langilearen profesionaltasuna zalantzatan jarri, eta bere txosten oinarri duna baztertu egiten dabe. *Bildu style.*

Bueltatu gaitezana harira, inoren tranpa baldarretan erori barik. Albiste ederra daukagu aste honetan Durango: posible izango dogu gure Udalarekin hartu-emonak gure ordenagailuetik bideratzea. Dagoeneko posible da tramite bakan batzuk horretara egitea. Onarturiko proposamenari esker, hartarago joango gara apurka-apurka. Martxan dago, bada, eAdministrazioa. Abian dago eDurango. EAJren hauteskunde-programari jarraiki hona hemen betetako beste konpromiso bat. Jakin eta egin.

**IKASTEKO TEKNIKAK
IKASTARO BERRIA**



• irakurmena • ulermena • motibazioa •
plangintza • azterketak

www.psicologo.biz

Jon Arruabarrena - Psikologoa
Frantzisko Ibarra, 6 (Durango)

946 033 246
629 245 728

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT

EGIARI ZOR
Iulen Madariaga



UME ETA
GAZTEENTZAT

**GURE
INGURUKO
ANIMALIAK**
Images Doc



MUSIKA

**JOHN
BERKHOUT**
John
Berkhout



Herriko familia bati lagundu guran, kontzertu solidarioa

Zelaietako eskolako guraso batzuen ekimena da



Andeka Gorrotxategi abadiñarrak kantatuko du emanaldian. Argazkia: EOS.

ABADIÑO **Itsaso Esteban**
Zelaietako herri eskolako hainbat gurasoren ekimenez antolatu dute uztaillaren 4an, 20:00etan, probalekuan egingo duten kontzertu solidarioa. Andeka Gorrotxategik, Bidane Txopiteak, Bogoroditsiek, Kukula Garak, Herri Maitek eta Kriskitinek hartuko dute emanaldian parte. Sarrerarik ez du izango emanal-

diak, baina bertaratzen direnak herriko familia bati laguntzeko ekarpena egitera gonbidatuko dituzte. Duela urtebete, 10 urte-gaz hil zen Aboubark herriki-dearen familiak hasi duen bide judizialaren kostua ordaintzen laguntzeko dirua batzeko antolatu dute kontzertu solidarioa, arduragabekeria medikorik gertatu zen ala ez ikertzeko.

Domekan egingo dute bigarren eskuko merkatu txikia

ABADIÑO **I.E.**
Ekainaren 29an, 10:00etatik 15:00etara izango da bigarren eskuko merkata, Ferialeku plazan. Arropak, liburuak, diskoak, bisuteria, xaboi naturalak, eta beste hainbat salgai eskainiko

dituzte parte-hartzaileek, 62 erakusmahaitan. Azken urte bietan probalekuan egin izan dute azoka, azaroan. Antolatzaileek azaldu dutenez, erakusmahai gehiago hartu ahal izateko atera dute kalera: iaz 45 posturentzako lekua egin zuten probalekuan, eta, aurten, 62k eman dute dagoeneko euren salgaiak Abadiñora ekartzeko izena; izen-ematea zabalik dago oraindik. Salerosketarako eta trukerako aukera eskainiko dute.

Plater-tiro lehiaketa antolatu du Mugarrak biharko

MAÑARIA **Joseba Derteano**
Mugarra Ehiza eta Arrantza Elkarrekin plater-tiro lehiaketa antolatu du biharko, 15:30etik aurrera, Garaitorreko landan, San Joan ermitaren ondoan. Egunean bertan egin daiteke izen-ematea 18:30era arte. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 25 euro. Irabazleen artean askotariko sariak banatuko dituzte, eta parte-hartzaile guztien artean eskopeta bat zotz egingo dute. Iaz 45 bat parte-hartzaile izan ziren, tartean Gipuzkoatik etorritako jendea.

Biblioteka kalera aterako dute datorren egunean

IURRETA **Amaia Ugalde**
Herri Biblioteka herrian hama-bostero antolatzen den azokara irtengo da datorren egunean, uztaillak 3. Irakurketa gune bat atonduko dute, eta liburutegiko bildumako hainbat kontu aterako dituzte: liburuak, aldizkariak, filmak eta musika, adibidez.
Herri Biblioteka kalera aterata, zerbitzuaren eta eskaintzaren berri eman gura dute herrian.
Goizeko 09:00etatik aurrera izango da liburutegia merkatuan, eta hainbat produktu kulturalaz gainera, kafea eta pastak ere eskainiko dituzte.

Udalekuak hasiko dituzte astelehenean 28 umek

GARAI **Markel Onaindia**
Garaiko 28 umek udalekuak hasiko dituzte datorren astelehenean. Hiru astez udaz gozatzeko ekintzak izango dituzte aukeran, eta uztaillaren 18an amaituko dute jardunaldia. 3 eta 11 urte arteko umeek parte hartuko dute, eta goizez garatuko da, egun osoko irteeraren bat egiten dutenean salbu.
Urtero lez, askotariko ekintza sorta prestatu dute haurrentzat; eskulanak, jolasak, txitxiburduntzia eta Basondora bisita dira horietako batzuk.

Udal langile baten plaza aterako dute lehiaketara

OTXANDIO **M.O.**
Udal eraikinen garbiketaz arduratzen den langile baten jubilazioa dela-eta, plaza hori lehiaketa publiko bidez beteko duela jakinarazi du udalak. Prozesu hori gauzatzeko hilabete batzuk beharko direla uste dute arduradunek: oinarriak onartu, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, izen-ematea abiatu, eta azterketa egin eta baloratu arte. Beraz, bitartean eta behin-behinean, plaza hori ohikoa izaten den moduren batean beteko dute laster aterako den deialdi baten bidez.

> DURANGALDEA ASTEON

Genero indarkeria salatzer atera dira

ELKARRETARATZEA > Genero indarkeriaren kontrako elkarretaratzean batu ziren dozeneka iurretarrak, martitzen iluntzean. Anderebide emakume elkarrekin *Emakumeen alde* leloagaz antolatu zuen elkarretaratze hori. Bikotekideak jo zuela salatu zuen Iurretako emakume batek, asteburuan, eta atxilotu egin zuten gizona.

Pilotakadaz Pilotakada, finalak

ELKARTASUNA > Domekan, Eloorrioko plazako pilotalekuan amaituko da presoen sakabaketa kontrako Pilotakadaz Pilotakada txapelketa. 10:00etan hasiko da txapelketa, pilotalekuan, 11:30ean Bizkaiko finalaurkekoak eta finala jokatu dute, eta 13:30ean egingo dute sari banaketa.

Jaiak ospatuko dituzte Tabiran

SANPEDROAK > Gaur, bihar eta etzi, San Pedro jaiak ospatuko dituzte Durangoko Tabira auzoan. Gaur, herri bazkariaren ostean, 19:00etan botako dute jaien hasierako txupina, eta txalaparta emanaldia izango da ostean. 09:00etatik jai giroa izango da bihar eta etzi ere, Tabiran, Jai Batzordeak atondu duen egitarauari esker.

Iritzia

**astekaria@anboto.org**
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga, 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • Telefonoa • Helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarrekin edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Heteroarauari desobedientzia

Ezin ukatu heteroarauari desobedientzia egitea gauza korapilatsua denik. Gure gorputzak, gure praktikak, gure bizitzak zeharkatzen dituen egitura izanik, zaila da deserosotasunik gabe eraldaketa bultzatzea. Hori da, deserosotasun pixka bat eskatzen du kontuak. Baina horixe bide bakarra arrakalera heltzeko. Gaur egungo jendartean, ugalketan oinarritutako sexualitate ereduak da normala, hori da ordenaren barruan dagoena. [...] Ez pentsa antisorgailuak eskuragarriago ditugulako hau aldatu denik, ez. Pentsa dezagun zein den zilegitasun gehien duen praktika sexuala gaur egun... Koitoa izaten jarraitzen du. Nahiz eta haurdun gelditzeko planarekin ez praktikatu. Ondorioz, gorputz ugalkorra, desira ugalkorra eta plazer ugalkorra, gainontzeko adierazpenen gaitetik kokatzen dira, eta hemendik kanpo emango diren moduak eta adierazpenak ez-normalak eta gutxituak izango dira. [...] Emakumeen ugalketa gaitasuna kontrolatu beharreko elementua izango da, beraz, emakumeen sexualitatearen eta gorputzen kontrola ezarriko dute. [...] Ideia hauek gure gorputzetan ezarriko dituzte, eta arauak bertan izkiriaturik geratuko dira naturalak izango balira.

Baina zailtasunak zailtasun, eredu patriarkal heterosexistak dituen horma zurrunean, zirrikituak aurkitzen jarraitzen dugu guk. Gure praktika sexualak aztertu, eta sexualitateari estatus politikoa emateko apustua egin dugu, eta bizitzeko era indibidualak kolektibizatu ditugu, horretan dago gakoa. Sexualitateari, plazerrari, dimentsio politikoa emateko saiakera erabatekoa izatea nahi dugu. Sexualitate eredu hegemonikoaren aurrean, arauen barnean sartzen ez ditugun praktikak iraultzarekin lotzen ditugu, eta ez ditugu praktika lesbianak arauaren barnean sartu nahi, araua bera deslegitimatuta nahi dugu gu guztiok kanpoan uzten gaituelako! Sexualitate hegemonikoaren edozein arau hauste bidean aurrera jarraitzeko ezinbestekoak ditugu [...]. Zentzu honetan, jendarte feminista baten alde lanean jarraitzeko beharra ikusten dugu, eta honetan herritar orok badugu zer eginga.

Egunerokoan heteroaraua desobeditzen jarduten dugu, muxu, begirada, koxka, masaje, mimo, laztan bakoitzean araua desobeditzen, arrakalak eragiten.

Berbaz

Natalia Zuazua | Durandog elkarteko kidea | Durango, 1986



“*Haserre gaude; babes barik sentitzen gara*”

Barruan orratzak dituzten saltxitxak agertu dira Tabiran eta Santanosten; Durandog elkartek animalien kontrako eraso horiez ohartarazi du

> BERBAZ **Jone Guenetxea**
Tabirako parkean jarri dugu hitzordua Durandog elkarteko kideekin. Elkarriketarako elkarteko beste kide batzuen zain gaudela, udaltzainek bidearen beste aldean aparkatu dute, eta paretik pasa dira oinez. Tentsioa agerikoa da. Txakurrak lotuta daudenez, aurrera egin dute. Txakurren ugazabek diotenez, egunero bizi duten egoera da hori. Txakurren ordenantzaren eztabaidaren erdian, barruan orratzak dituzten saltxitxak agertu dira Tabiran eta Santanosten.

Orratzez betetako janaria agertu da Durangoko berdeguneetan. Arduratuta zaudete gertaera horien aurrean? Haserre gaude, eta babes barik sentitzen gara. Gure jarrera kontrolatzea, eta beste herritar guztiena ez, bidegabea dela uste dugu. Atzo bertan, Kilikolo elkartearen aurreko berdegunean barruan orratzak zituzten bi saltxitxa agertu ziren. Txaku-

rrarren jabea denboraz ohartu zen, eta udaltzainen esku utzi zituen. Orain dela sei hilabete arratoiak hiltzeko pozoia agertu zen Tabiran. Kasu horretan pentsatu genuen, erreka ondoan izan zenez, agian ez zela eraso bat izan. Joan zen astean, berriz, txakur berberak orratzez betetako saltxitxak jan zituen. Beraz, argi dago eraso horiek guztiak min egiteko izan direla. Jabe horrek txakurra lotuta eramaten du, eta horri esker, momentuz, garapena ona da.

Zerk bultzatu zaituzte txakurren inguruko ordenantzaren aldaketa eskatzera Durangoko Udalean?
Durangoko Landako Gunean ekitaldi bat dagoen bakoitzean udaltzainak etortzen ziren txakurrak ezin zirela solte egon abisua emateko. Kalera Rock musika jaialdiko asteburuan ere horrela egin zuten. Momentu horretan erabaki genuen udaltxeagaz hartu-emanen jartzea, araudia aldatzeko.

Zer pauso eman duzue udalean?
EAJko zinegotzi bategaz berba egin genuen, eta deitu ere egin zigun ordenantza begiratzen zeudela esatzeko. Hilabete inguru pasa zenean ez genuen aurrerapausorik ikusten, beraz, udaletxe aurrean kontzentrazioa egitea erabaki genuen.

“**Udalaren proposamenari ‘Txakur banpiroen araudia’ deitzen diogu**

Handik astebetera udaletik deitu ziguten, gure proposamena udalbatzarrerara eramango zutela azaltzeko. Osoko bilkuran ordenantza aldatzea aho batez onartu zuten. Hiru hilabete pasatu dira, eta ez dugu inolako erantzunik jaso. Ordenantza berria onartu bitartean behin-behine-

ko araudi bat sortzeko eskatu genien. Ez dute horrelakorik egin, eta gure ohiko lekuetan txakurrak askatzen jarraitzen dugu. Udaltzainen jarraipena eta mehatxuak geroz eta handiagoak dira. 300 euroko isunak ere jarri izan dituzte.

Udalagaz batzartu zineten Elkartegian.

Udalak batzarrerara deitu zuen Elkartegian, bando bidez, txakurren jabe zein beste edozein herritar bertan parte hartzera gonbidatzeko. Udalak bere araudi proposamena atera zuen. 100 lagun iguru gerturatu ginen batzarrerara, eta horietatik %95 txakurren ugazabak ginen. Argi gelditu zen ordenantzaren beharra sentitzen dugunok txakurren jabeak garela.

Zein da udalaren araudia?

Txakur banpiroen proposamena deitzen diogu. Udan txakurrak gaueko 22:00etatik goizeko 10:00etara ateratzea proposatu zuen udalak, eta 21:00etatik 09:00etara neguan. Durangoko kanpoaldean dauden hainbat leku proposatzen ditu horretarako: hiltegiaren ondoko parkea, Zuhatzola parkea, San Ignazio auzunean errekaaren parean doan bidea, Tabirako baselizatik Funsanerako bidea, pozoia agertu den lekua eta Abadiño dela esango nukeen Astolabide, Sabecoren inguruan. 24 orduz

zabalik izango genukeen lekua Astolabide izango litzateke.

Zer deritzozue udalaren proposamenari?

Segurtasun aldetik proposamen txarra dela uste dugu. Alkateari ere esan diogu ea bere alaba bat edo ama parke horietako batera bidaliko lukeen ordu horietan. Era berean, higiene aldetik ere ez da egokia. Txakurra gaueko 23:00etan atera behar badut, eta parke batean kaka jaso behar badut, eta argiztapenik ez badago, zelan jasoko dut?

Gasteizen txakurren inguruko legea aldatu dute. Lege hori erreferentzia da zuen ustez?

Gasteizen legea aldatu dute, eta txakurrak %100 babesten ditu. Txakurra ezin da zortzi ordu baino gehiago lotuta egon; ezin da ez balkoi, ez poste batean bera bakarrik lotuta utzi; ugazabak derrigortuta daude parkeetan txakurrak askatzera eta kakak batzera... Ez dugu ulertzen Gasteizko Udalean hain aldaketa handia egin izana, eta hemen aldaketa bat eskatzeko hainbeste buelta eman behar izatea. Lotsagarria da hedabideekin hartu-emanen jarri beharra udalak kasu egiteko, eta elkarretaratze bat egin beharra gu serio hartzeko. Herritar moduan gure eskubideak ditugula uste dugu. Ez daukat umerik, baina nire zergak umeen parkeetara ere badoaz. Gure beharrak ere kontuan hartzea nahi dugu.

Txakurren jabe ardurabakoen jarrerak eragiten duten kaltea zuek ordaintzen duzue?

Orokorrean, txakurra daukagunok nahiko zentzudunak garela uste dugu. Badakigu errespetuz jokatzeko, eta arlo honetan sentsibilizazio lana egin beharko genuke, bai jabeen aldetik, bai txakurrak ez dituztenen aldetik.

Durandogeko kideok zer eskatzen duzue?

Udalaren proposamenaren aurrean guztiz kontrakoa planteatu genuen; hau da, Durango kanpoaldean dauden parkeak 24 orduz zabalik izatea txakurrentzat, eta herriguneko parkeetan ordutegia jartzea. Aste bitartean, ordu batzuetan parke hauek hutsik egoten dira. Ez dugu eskatzen guk nahi duguna egitea, zentzuzko arauak sortzea baino. Zentzuz jokatu dezagun, bai guk, bai beste herritarrek, bai udaltzainek. Babestuta sentitzeko ordutegi bat eskatzen dugu, beste herritarren erasorik ez jasateko.

JAIAK!

Zaldibar

2014ko UZTAILA



Zaldibarko Udalak
udako jai zorientsuak
opa deutsuez zaldibartar guztioi



ZALDIBAR
Elizateko Udala

ZALDIBARKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 27, 28 ETA 29

Eskualdeko XXIV. Areto Futbol Txapelketa kiroldegian.

EKAINAK 28, ZAPATUA

16:30ean, VII. Pilota Txapelketako finala, kadeteak eta jubenilak.

EKAINAK 29, DOMEKA

08:30-14:00 XXXI. Argazki Rallya.

UZTAILAK 3, OSTEKUNA

18:30ean, herriko jendeak Donien Atxa ipiniko du, eta jaietako kartel lehiaketako sari banaketa udaletxean.

19:00etan, aurrekua. Jaien hasiera iragartzeko udaletxetik txapligua jaurtiko dute guraso elkarteak kideek. Gero, kalejira Koral elkarte trikitilariekin eta buruhandiekin.

20:00etan, triki-bertso-poteoa, txosnetan hasita.

20:00etan, odoloste-jana Bekoetxe kalean.

21:30ean, afizionatuen arteko pilota partiduak Olazar pilotalekuan.

21:30ean, herri afaria txosnaguenan.

23:30ean, Erromeria.com taldeagaz dantzaldia.

UZTAILAK 4, BARIKUA

11:30-13:00 eta 16:00-19:00 Umeentzako parkea eskolan.

17:00-19:00 Jinkana Gaztelekuko eskutik.

17:30-20:00 Eskulanen erakusketa jubilatuen etxean.

19:00etan, kalejira Elektro txarangagaz, txosnetan hasita.

23:00etan, Olea DJa kalean. Helmugak antolatuta.

23:00etan, kontzertuak txosnetan: En Tol Sarmiento eta Governors.

03:00etan, kulero eta galtzontzillo lasterketa txosnaguenan.

UZTAILAK 5, ZAPATUA

11:00-13:00 arku-tiroa ume eta nagusientzat, Arku taldearen galerian.

13:00etan, tortilla txapelketa eskolan.

16:00-19:00 3x3 saskibalo partidua (mutilak eta neskak) eskolan.

17:30-20:00 Eskulanen erakusketa jubilatuen etxearen azpiko solairuan.

19:30ean, afari-merienda Olea kalean. Solomoa 1€ eta sardinak 2€.

18:00etan, Elkarleen arteko IX. Olinpiadak Euskal Herria etorbidean.

19:30ean, mojito poteoa Zaparrada Elektro txarangagaz.

23:00etan, erromeria Trikitio taldeagaz. Atsedendian berdintasunaren aldeko mapping-a.

UZTAILAK 6, DOMEKA

10:30ean, eskolarteko txirrindulari proba. Kategoriak: hasiberriak, kimuak eta haurrak.

11:00etan, kalejira Euskal Herriko trikitilari gazteen lehiaketako txapeldunekin.

11:30ean, Senegal hegoaldekoekin kalejira eta dantzak MLOMP kultur elkartearen eskutik.

12:00etan, euskal dantzak Zaldua plazan.

17:00etan, umeentzako entzierroa Euskal Herria kalean.

17:30-20:00 Eskulanen erakusketa jubilatuen etxearen azpiko solairuan.

18:00etan, bertsolariak Zaldua Elizateko plazan: balkoitik balkoira.

22:00etan, jaietako argazkien emanaldia.

23:00etan, su artifizialak Autonomia kalean.

UZTAILAK 12, ZAPATUA

07:00etan, mendi ibilaldi neurtua. Irteera: Zaldua plaza.

16:30ean, jubenil mailako Bizkaiko txirrindulari Itzuliko etapa: Zaldibar-Zaldibar.

18:00etan, XXXI. Argazki Rallya: sari banaketa liburutegi zaharrean.

UZTAILAK 13, DOMEKA

12:00etan, euskal dantzak San Martinen.



BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
48250 Zaldibar, Bizkaia



IMENDIA

Bideo alokairua Prentsa salmenta
Fotokopiak Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413 • Zalduasolo E.7
48250 ZALDIBAR



Castet
Zaldibarko Herriko taberna
200te!

-Bokatak
-Musika onena
-Giro herrikoia



PAULAREN ZOKOA
KAFE
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik aurrera zabalik

Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar

 Paularen Zokoa

Ekitaldiz betetako hamar egun herriko jaietan, eguenean hasita

Eguenean, 18:30ean Donien Atxa jaso, eta txaplogua botako dute jaiei hasiera emateko



Eguen arratsaldean jasoko dute Donien Atxa, eta kartel lehiaketaren sari banaketa egingo dute. Delfin Zubizarreta

> JAIK Joseba Derteano
Donien Atxa jasota, eta txaplogua botata, datorren eguenean hasiko dituzte aurtengo jai nagusiak. Aurten herriko eskolako gurasoen elkarteak botako du txupina. Ordutik aurrera, zaldibartarrek musika, dantza, bertso saioa eta askotariko ekimenekin betetako hamar egun izango dituzte jaiekin gozatzeko. Sortu zenetik hona urtero jende asko batzen duen ekimenetako bat elkarten arteko olinpiadak izaten dira. Aurten, uztailaren 5ean izango dira. Ekimen dibertigarria izateaz gain, "oso baliagarria da herriko elkarten arteko hartu-emanak sendotzeko", Unai Urizar txos-

naguneko kidearen esanetan. Iaz Castet elkarteak irabazi zituen olinpiadak, eta, zazpiko taldea osatzea lortzen badu, aurten

Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza eta Jon Maia balkoitik balkoira ariko dira

txapela defendatzea egokituko zaio. Olinpiadetako probak ez dira ezagutaraziko eguna heldu arte. Normalean proba bitxiak eta dibertigarriak izaten dira: irrintzirik onena nork egin, arropak erantzi eta eurekin sokarik luzeena nork egin...

Bestetik, 'Balkoitik Balkoira' bertso saioa ere jaietako ekimen jendetsuetako bat izaten da. Aurten Jon Maia, Miren Amuriza eta Beñat Gaztelumendi ariko dira bertsoan domekan, uztailaren 6an, Zaldia plazan. Uztailaren 3ko triki-bertso-poteoan beste bertsolari bi ariko dirakantari: Garikoitz Sarriugarte eta Beñat Ugartetxea. Musikari dagokionez, Erromeria.com, Triki, En Tol Sarmiento eta Gobernors taldeen erromeria eta musika kontzertuak egongo dira jaietan. Uztailaren 4an, oster, elektrotxarangaren munduan aitzindaria izan zen Orkresta txarangak ipiniko du jai giroa.

Argazki kameraren erdigune bihurtuko da Zaldibar, etzi

Domekan egingo duten argazki rallyak 31 urte daramatza herriko txokoak irudietan hilezkortzen

> JAIK J.D.

Azken hiru hamarkadetako tradizioari eutsita, Ilargi argazki taldeak argazki rallya antolatu du domekarako, goizetik eguerdira. Herriko irudien datu-basea potolotzeko ez ezik, "kanpotik datozen parte-hartzaileen artean herria ezagutarazteko" ere ekimen baliagarria da, Delfin Zubizarreta Ilargi argazki taldeko kidearen esanetan.

Domekan, 08:30ean batuko dira parte-hartzaileekin, rallyari hasiera emateko. Gai bat antolakuntzak proposatuko du, baina beste batzuk zerrenda luze batetik zotz egingo dituzte denon aurrean. Parte-hartzaileek, guztira, sei gai izango dituzte: lau aurrez zehaztuta, eta bi libre. Esaterako, iaz hauek izan ziren

aurrez zehaztutako gaiak: ilea, aparra, erakusleioa eta ikurrina. Aitor Rementeria elgoibartarra izan zen irabazlea, eta zaldibartar bi geratu ziren bere atzetik: Jose Ignacio Marcos eta Haizea Madariaga. Herriko saria Rafael Lopezek irabazi zuen.

Parte-hartzaileek 14:00ak arteko epea izango dute argazkiak ateratzeko, Hala ere, tartean, 11:00 inguruan indarrak batzeko hamaiketako izango dute liburutegi zaharrean. Domekako saioaren ostean ateratako argazki guztietatik sei aukeratzeko hamar bat egun izango dituzte parte-hartzaileek. Ondoren, uztailaren 12an, 18:00etan, sari banaketa eta argazkien erakustaldia egingo dute liburutegi zaharrean.



lazo irabazleak 'ilea' gaiaren inguruan lehiaketara aurkeztutako argazkia.



ZAGAR

SISTEMAS TÉRMICOS Y CONTRA INCENDIOS

ERAIKINEN ENERGIA · ERAGINKORTASUN ZIURTAGIRIA

SISTEMA TERMIOAK
Klimatizazioa
Aireberritzeko instalazioak
Gasa
Energia berriztagarriak

SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK
Su-itxalgailuak
Suteetako ur-harguneak
Suaren kontrako ateak
Suteak antzemateko instalazioak

Mallabiko industrialdea - Solozabal Pol. - Pab. 7 · 48250 ZALDIBAR
Tel.: 946 826 673 · Faxa: 946 826 671 · zagar@zagarsistemas.com

MEKANISA

PIEZEN MEKANIZAZIOA OROKORREAN

San Andres etorbidea, z/g · 48250 ZALDIBAR
Tel.: 946 827 589 · Faxa: 946 225 634
Posta elektronikoa: mekanisa@hotmail.com



Laura plus Ondua

Bodegas Laura
Arobar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Victor Maestro (Ermua, 1969) eta Nati Mesa (Zaldibar, 1975) | Eskolako guraso elkarteko ordezkariak

“Denoï egiten digu ilusioa jaien hasierako txupinazoa botatzeak”

Uztailaren 3an, 19:00etan jaurtiko dute guraso elkartekoek Zaldibarko jaietako txupina



> ELKARRIZKETA Itsaso Esteban
Ohore berezia da zuentzat
jaietako txupina botatzea?

Victor Maestro: Zelan ez, denoï egiten digu ilusioa jaien hasierako txupinazoa botatzeak. Dena den, konturatu gara orain arte herriko pertsona ezagunak izan direla txupina bota dutenak, eta zerrenda hori amaitu egin

dela dirudi [barrez]. Ohore hori herriko elkarteei eman diote azkenaldian.

Nati Mesa: Esan zigutenean sinetsi ere ez genuen egiten! Egia da, bestalde, jaietan ere udalgaz elkarlananean jarduten dela guraso elkarteak.

V.M.: Udalaren diru-laguntza jasotzen dugun heinean, urtean

hainbat ekintza antolatzen laguntzen diogu herriko elkarteok udalari. Hainbat lanetan kolaboratzen dugu.

Noiztik zabiltzate Zaldibarko eskolako guraso elkarteak?

V.M.: 2001ean, ezkondu nintzenean etorri nintzen hona bizitzera, eta seme-alaba bi dauzkatz

Zaldibarko eskolan. Duela lau urtetik dihardut guraso elkarteak, eta azken hiru urteetan lehendakari. Datorren ikasturtean guraso talde berriari laguntzen ariko naiz, aurtengo amaituko duten batzordekideak bezala.

N.M.: Alaba bi dauzkatz eskolan, eta urte bi daramatzat elkarteak. Datozen bi urteetan ere bertan jardungo naiz, eta Victorrek utzitako lehendakari kargua hartuko dut.

Zein da guraso elkarteak gehien lantzen duen arloa?

V.M.: Lan handiena eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen eta koordinatzen egiten dugu. Hainbat kirol eskaintzen ditugu: futbola, saskibaloia, gimnasia ritmikoa, karatea, aerobika, igeriketa... Eta ingeleseko hainbat mailatako eskolak ere eskaintzen ditugu. Ez da lan erraza izaten ordutegi guztiak egokitzea. Urtean, bestalde, hainbat jai antolatzen ditugu: sanandresetan, inauterietan, Gabonetan...

N.M.: Aurtengo Gabonetan umeentzako parkea antolatu dugu lehenengo aldiz, eta arrakasta itzela izan du. Gainera, hezkuntzaren inguruko hiru hitzaldi ere eskaintzen ditugu ikasturte guztietan.

Zenbat ume aritzen da eskolaz kanpoko ekintzetan?

V.M.: 290 ume hartu dute aurtengo eskolaz kanpokoetan parte. Gure helburua da nahi duen orok izatea eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko aukera, eta ekintzek denen eskura dauden prezioak izan ditzatela.

Joan zen asteburuan egin zenuten ikasturte amaierako jaiak.

V.M.: Urtero egiten dugu jaiak,

ikasturtea amaitu eta hurrengo zapatuan: goizeko 09:00etatik goizaldeko 04:00ak arteko jaiak da. Aurtengo ere hainbat joko antolatu ditugu, tabernatxo bat ipintzen dugu denon artean, afaltzeko elkartzeko gara... Giro polita sortzen da urtero-urtero.

N.M.: Jai horretan antolakuntza lanetan laguntzen digute ikasturteko joango diren seigarren mailako ikasleek gurasoek: barran, antolakuntzan eta garbiketa lanetan laguntzen digute.

Gustura zaudete egiten duen lanaren emaitzagaz?

V.M.: Buru-belarri egiten dugu lan ikasturte osoan antolatzen ditugun ekintzak ondo atera daitezkeen, eta, orokorrean, oso pozik gaude emaitzagaz. Horren harira, eta etorkizunean zertan hobetu genezakeen ikusteko, inkesta bat zabaldu berri dugu: gurasoei eskatu diegu, besteak beste, elkartearen jarduna baloratu dezatela. Emaitzak aztertuko ditugu oraindik.

Gurasoek era aktiboan parte hartzen dute elkarteak?

V.M.: Ez da erraza parte-hartze maila handia lortzea. Jendeak ohitura dauka tabernan gaudela eskolaren inguruko gauzak komentatzeko, batzarretara etorri edo idatzi bat egin beharrean.

N.M.: Egia esan, nahi genukeen baina askoz guraso gutxiago etortzen da, esaterako, ikasturtean egiten ditugun bi asanblada orokorretara.

Zer erronka nagusi dauzka Zaldibarko eskolak eta guraso elkarteak etorkizunerako?

N.M.: Eraikina konpondu diezagutela lortzea da nagusia.

V.M.: Eskolak egiturazko arazoak dauzka –ur filtrazioak eta leku falta, adibidez–, eta horiek konpontzea oinarritzakoa da.

N.M.: Seme-alaben bila goazenean, egunero egiten dugu sartu-irtena eskolara, eta gurasoek badakigu egoera kaskarrean dagoela. Baina benetan larria eraikinaren egoera da.

HORTZ KLINIKA

HIPOLITO YANIZ EGUILAZ
DENTISTA

Foru kalea, 4, beheka C | 48250 ZALDIBAR
Tel.: 946 225 016

MUELLES
ZALDUA S.L.



MALGUEN
FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801
Faxa.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

Hiru jauregitako eta plazako emanaldiak zentzumenen gozagarri, uztailean, Elorrion

Dozena bat kultur emanaldi lotu dituzte Elorrioko Musikaire jaialdirako



> EGITARAUA Itsaso Esteban Herriko plazan eta Elorrioko ondare arkitektoniko aberatsaren erakusle diren hiru jauregitan atonduko dituzte, aurtan, Musikaire jaialdaren emanaldietarako agertokiak. Euskal Herriko

kultur sortzaileen zein nazioartekoen doinuak entzuteko, eta dantza edo arte eszenikoen ikuskizunez gozatzeko, doako eta kalitate handiko emanaldiak eskaintzen ditu Musikairek. Herriko plazako, eta Tola, Lariz eta

Casajara jauregitako emanaldiek osatuko dute jaialdia. Guztira hamabi emanaldi jasoko ditu Musikaire jaialdiaren aurtengo egitarauak, uztailaren 4an hasita. Afrikako eta Portugalgo doinuen eraginetik jazzeraino-

ko ibilbidea egin duen Carmen Souza abeslariak zabalduko du jaialdia, uztailaren 4an, Lariz jauregian. Jazzetik jarraituko du Musikairek lehenengo asteburuan. Uztailaren 5ean, Euskal Herriko jazzaren erakusle, Hasier Oleaga bateria-jotzailea buru duen boskotea ariko da. Dantza garaikideko hiru piezak itxiko dute 2014ko Musikaireren lehenengo asteburua.

Uztaileko bariku, zapatu eta domeketan primerako kultura eskaintza, Elorrion

Uztaileko hurrengo hiru asteburuetan –uztaileko bariku, zapatu eta domeketan–, udako gaugiro epelean, denetariko kultura eskaintza izango da gozagai Elorrion: besteak beste, Antonio Zambujoren fadoa, Mikel Laboaren omenez Tanttaka Teatroa taldeak sorturiko *Zazpi aldiz elur* ikuskizuna, Habib Koité maliarraren afro-pop doinuak, Manel taldearen indie-folk katalana, eta Jabier Mugu-ruzaren eta Kepa Junkeraren lanak izango dira entzungai.

UZTAILAREN 4an, 22:30ean	Carmen Souza - Lariz jauregian
UZTAILAREN 5ean, 22:30ean	Hasier Oleaga - Larizen
UZTAILAREN 6an, 20:00etan	Dantza garaikidea - Larizen
UZTAILAREN 11n, 22:30ean	Habib Koité - Tola jauregian
UZTAILAREN 12an, 22:30ean	Antonio Zambujo - Tolan
UZTAILAREN 13an, 20:00etan	Jabier Mugu-ruza - Tolan
UZTAILAREN 18an, 22:30ean	Kepa Junkera - Tolan
UZTAILAREN 19an, 22:30ean	Manel - Tolan
UZTAILAREN 20an, 20:00etan	Elkano Browning Cream - Tolan
UZTAILAREN 25ean, 22:30ean	Elfenthal - plazan
UZTAILAREN 26an, 22:30ean	Zazpi aldiz elur - plazan
UZTAILAREN 27an, 20:00etan	Antzerkia - Casajara jauregian

“Jazz klub txikietan zein udako jaialdi jendetsuetan jotzen dugu; denetan gozatzen dugu”

Carmen Souza (Lisboa, 1981) kantariaren laukoteak zabalduko du Musikaire

> MUSIKA

Theo Pascal baxuagaz eta kontrabaxuagaz, Elias Kacomanolis baterian eta Ben Burrell pianoan izango dituzu laguntzen Elorrion, ezta?

Laurok joango gara Elorriora, bai. Azken aldian binaka jo dugu gehiago, eta oso interesgarria iruditzen zaigu taldeagaz ere esperimentatzea: ez duzu berdin jotzen talde desberdinekin. Taldearen arabera oso desberdina da bakoitzak daukan espazioa, adibidez. Gauza asko aurkitzen dituzu.

Zer kanta joko duzue Elorrion? Urteotako konposizioen erakusle den saioa eskainiko dugu Elorrion, *Live at Lagny* gure azken diskoan oinarriturikoa.

Uda sasoia bereziki lanpetua da zuretzat?

Bai, uda beti izaten da emanaldi askoko sasoia, eta han-hemen

denetariko esperientziak bizi izaten ditugu musikari esker. Oso sasoi polita da, zuzenean jotzen dugunean esperimentatzen gabiltzalako. Hau da, gehien gustatzen zaigun lanean. Bizi osorako energia batzen dugu.

Non dituzue datozen asteetako emanaldiak?

Martinikan, Frantzian eta Suitzan joko dugu, esaterako.

Jende askoren aurrean kantatzera ohituta zaude, baina Elorrion giro intimoagoan ariko zara. Denetan disfrutatzen duzu berdin?

Bai, jazz klub txikietan zein udako jaialdi jendetsuetan jotzen dugu. Denetan gozatzen dugu. Disfrutatzea da helburua.

Zer lan egiten eta non harrapatu zaitugu?

Londresen nago, Theo Pascal musikari eta produktoreagaz

daukadan Pascal Souza izeneko proiektu berrian lan egiten. Azken urteetako gure ibilbide musikalean jorratu dugun esperimentazioan oinarrituriko lana izango da hori. Disko berria grabatuko dugu.

Zelakoa izango da Pascal Souza proiektua?

Nahiz eta ahotsak ere bere lekua izango duen, instrumentista legez dihardut, batez ere, proiektu horretan: pianista legez. Carmen Souza proiektuan egiten dugunagaz alderatuta, oso bestelakoa da hau; eta oso pozik nago, asko esperimentatzen dugulako. Theoren konposizioak dira egiten ditugunak, askotariko influentziak dauzkatenak: afroa, Afrika iparraldekoa, Cabo Verdekoa, Portugalgoa, jazz... Carmen Souza proiektuan ahotsa dago beti lehenengo planoan, honetan, aldiz, beste leku bat hartuko du ahotsak.

Cabo Verdeko kultura, Portugalgoa eta jazz uztartzen dituzue proiektu honetan ere? Bai. Kultura lusofonoaren erakusle da, portugesez berba egiten duten herrialdeena: Cabo Verde, Brasil eta Afrika iparraldeko kulturena. Horien eraginak nabari dira.

Urte asko daramazue Pascalek eta biok elkarlanean?

Hamabi urte daramatzagu. Nik 17 urte nituela, bera izan zen musika egitera animatu ninduen. Portugalen bizi ginen, eta musika produktore lanetan zebilen bera. Hasieratik ibili gara elkarrekin, eta elkarrekin konposatzen dugu orain ere.

Musikaireko karteletako beste izenetako bat Antonio Zambujo portugaldarrarena da. Zer esan jendea Zambujo entzute-
ra joatera bultzatzeko?

Portugalgo musikaren abeslari handia da Zambujo, Portugalgo musika munduan zehar darman gure ordezkari handia. Entzun beharreko kontzertua!

Uztailaren 4an zeu entzutera doanak zer jasoko du?

Cabo Verdeko musikaren eta inprobisazioaren nahasketa bat. Eskaintzen dugun musika sentitzera eta gozatzera gonbidatzen dut jende guztia: Cabo Verden, Portugalen eta Ipar Ameriketara zehar, geugaz bidaiatzera.



Kantuan eta gitarra jotzen ariko da Souza Elorrion.

‘Enlorqueciendo’ antzezlan eskainiko du Banartek Errotan

Berrizen estreinatu zuen Banartek obra, eta asteburuan Abadiñon ariko da



Banarteren seigarren antzerki tailerreko partaideek dihardute obran.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Berrizko Kultur Etxean estreinatu zuen Banarte Abadiñoko antzerki taldeak *Enlorqueciendo* obra, joan zen egunean. Talde horrek seigarren urtez antolatutako duen antzerki tailerreko partaideek ikasturte amaierarako prestatu duten antzezlan da *Enlorqueciendo*. Bi emanaldi izan dituzte aurreikusita Abadiñorako: atzo, Txanporta kultur etxean eskaini zuten, eta domekan, 20:00etatik aurrera, Errotan eskainiko dute.

Federico García Lorca poetaren ‘La casa de Bernarda Alba’ lanean oinarriturikoa da obra

Federico García Lorca poetaren *La casa de Bernarda Alba* antzezlanean oinarrituta prestatu dute *Enlorqueciendo*. Idazle andaluziarraren obraren garrantziari eta esanahiari buruz dihardu Banartek lan honetan, Lorcak obra idaztea amaitu zuenetik 78 urte igaro direnean. Lorca antzerkigileari begiratzeko beste modu bat eskainiko dute, sortzaileen berbetan. Sarido Irisarriren zuzendaritzagaz prestatu dute antzezlan.

Bestalde, profesionala ez den antzerkigintzaren Zaragozako Centro Universidad lehiaketan antzezlan onenaren saria jaso berri du Banarte antzerki taldeak asteon. Lehiaketara aurkeztu diren ehun lanen artean epaimahaiak hautatu dituen seien artean dago *Guernica 1913*.

Ez da hori Banarte antzerki taldeak obra horregatik jasotako lehenengo saria. Urte hasieran, Espainiako Antzerki Amateurraren Konfederazioaren sari nagusia jaso zuen. Gernikan, mende hasieran jazotako benetako gertaerak kontatzen ditu antzezlanak.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Zentzumenak

Ikusmena

Zenbaki eta ehunekoen zopa zifratu gara haienztat. Urte luzez, ilusioz ikasitakoak etxekoentzat. Formakuntza eta lana uztartuz ezagutu gaituzte lagunak. Baina gazte langabeok, bizirautearen pisua dugu oihartzun. Gai gara, baina gaitza da.

Entzumena

Aditu ditugu bizi dugun “garaia” izendatzeko hiztegi berria egin duten agintariak. Konposatu duten izurritea konpost bihurtuko nuke. Errefusak, baina, ezin bizirik erditu.

Usaimena

Esperientziaren kiratsak bustitzen zituen lan eskaintzak behinola, mila euro irabaztea pribilegio baino problema zen “garai” haietan. Usainduko balute gazteon lan egiteko, ikasteko, konprometitzeko eta ekiteko grina... baina paretak ere kakaz beteta dituzten komunak garbitzera legez, sudur zuloak itxita datoz gugana.

Ukimena

Pilatu ditugun tituluak laztantzea da diru-laguntza, beka eta enparauen ordaina. Baserritarrari erosi ezinda, tomate miserableak baino ezin eroan ahora. Nola bete saskia bertako produktuekin alokairuak ia ordainezin zaizkigunean?

Dastamena

Dastatu nahi nituzke bestelako herriak, baina ez halabarrez. Maletak plazerrez soilik egitea erabaki dugu askok. Euskal Herrian eta euskaraz lan egin eta bizi nahi dugu. Diagnostiko larria dauka aferak, ez da botikarik inon ageri.

Ekilibrioia solstizioarekin bat erre dugun ekilibristak gara. Orekaren dantzan emandako neguaren oinazeak erre gaitu. Eguzkia atera orduko sutu. Zentzumenak zorrotz. Ake-larrea dator, etorriko da, ekarri beharko dugu.

Begira Photo jaialdia jai giroan amaitzeko ekitaldia, Plateruenean

Ekainaren 28ko jaiak emango du jaialdia amaitutzat

> ARGAZKIGINTZA

Hiru astez Durango argazkigintza garaikideari loturiko ekin- tzez bete duen jaialdiari amaiera emateko hitzordua ipini dute, ekainaren 28an, Plateruena Kafe Antzokian. Musika beltza, soula, jazz eta musika latinoak ipintzen duen Global Funkers kolektiboko kidea den Sate DJa ariko da, 00:00etatik aurrera, Plateruene-ko amaiera jaia girotzen. Horren aurretik, 23:30ean Begira Lagun saria zozkatuko dute, jaialdia finantzatzeko euren ekarpena egin dutenen artean.

Jaialdiaren azken txanpa honetan erakusketek gozatu nahi duenak badu oraindik aukerarik: domekara arte egongo dira

zabalik Godzillaren Merkatu plazako *Cabanga*, eta Rous Boi- sierren *Pérdida* eta Goiuri Alde- koa-Otalararen *Bosnian Déjà Vu* biltzen dituen, esaterako.

Musika beltza ipintzen duen Sate DJa ariko da 00:00etatik aurrera amaiera jaia girotzen

Argazkigintza garaikidea ahal beste zabaltzeko helburuz, zortzi erakusketa, sortzaileekin hainbat solasaldi, proiektzioak, eta tailerrak eskaini ditu Begi- rak Photok beste urte batez.

Perhaps Contraption taldea garaile Haizetara jaialdian

Domekan egin zuten sari banaketa, Zornotzan

> MUSIKA

Londresko Perhaps Contraption taldeak jaso du Haizetara lehiaketako 10.000 euroko sari nagusia. Hamar musikariko taldea da, eta erritmo biziak, harmonia koralak eta koreografia landuak

uztartzen ditu. Sari nagusiaz gainera, beste sari bi ere banatu dituzte: publikoaren sari berezia –4.000 euro– Tokyo Brass Style taldeak jaso zuen, eta Ottoni Animati taldeko tronpetariak instrumentista onenarena.



10.000 euroko sari nagusia jaso du Londresko taldeak.

uda klean bizi 2014

Malas compañías Txatarra

Ekainak 27, ostirala
20:00 - Musika Eskola Parkea

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

EKAINAK 27 - 22:00etan 13/15 euro
MONOLOGOS 10
TXABI FRANQUESA ETA DAVID BRONCANO
BAKARRIZKETA

EKAINAK 28 - 19:00etan 5 euro
BEGIRA PHOTO FESTIVAL '14
Emak bakia filmaren proiektzioa + Sari banaketa + Festa
AMAIERA FESTA

EKAINAK 29 - 18:00etan 5 euro
IKASTURTE AMAIERAKO FESTA.
JORGE ETA DEIENE DANTZA ESKOLA
DANTZA IKUSKIZUNA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!

946 217 902

Espainiako Promesen Atletismo Txapelketa jokatu da Landakoko atletismo pistan

Uztailaren 5ean eta 6an 700 atletak parte hartuko dute Espainiako Promesen Atletismo Txapelketan



Hernandez, Irigoras eta Zarrabeitia, txapelketaren aurkezpenean.

> ATLETISMOA M. Onaindia
Uztailaren 5ean eta 6an Espainiako Promesen Atletismo Txapelketa hartuko du Landakoko atletismo pistan. 700 atletak par-

te hartuko dute, eta zaleak zein kirol taldeetako kideak kontuan hartuta, Durangora 2.000 bat lagun etortzea aurreikusi dute antolatzaileek.

Bidezabal atletismo klubak antolatu du txapelketa, eta Juan Ignacio Hernandez arduradunak esan du gorengo mailaren aurreko etapan dauden Espai-

niako atleta onenak ibiliko direla txapelaren bila. Horren adibide, urtetan atzera Reyes Estevezek eta Yago Lamelak errekorrak lortu zituztela gogoratu du. Ekitaldiko kartelean, hain zuzen, Lamelaren argazkia agertzen da omenaldi lez. Maiztean hil zen jauzian munduko onenetakoa izandakoa.

Hernandezek aurreratu du Bidezabaleko lau emakumek domina lortzeko aukera edukiko dutela. Adibidez, Olatz Egiguren lekeitiarrak heptatloian parte hartuko du. 200 metrokoan, hesietan eta erreleboetan ere badaukate domina eskuratzeko esperantza. Uztailaren 5eko jardunaldia 10:00etan hasiko da, eta 6koa 09:00etan. Biek gaueko 22:00 ingurura arte iraungo dute.

Bestalde, zapatu honetan, hilaren 28an, txapelketa bi hartuko ditu Landakoko pistan.

Batetik, emakumeen Ohorezko Mailan jaitsiera eta igoera postuak jokatuak dituzte, eta Bidezabal egongo da mailari eusteko proban. Bestetik, gizoneen Lehenengo Mailako finala ere bertan lehiatuko dute.

Eragin turistikoaz

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek nabarmendu du Durangaldeko ostuak beteta daudela asteburu horretarako, eragin ekonomikoaren adierazle. Txapelketarako 12.000 euroko laguntza eman diote Bidezabali, eta gogora ekarri du pista hobetzeko eta eguneratzeko inbertsioak egin izan dituztela. Aitziber Irigoras alkatea pozik agertu da txapelketa Durangon ospatuko delako, horrela Durangoren izena kanpoan entzungo delako. Hernandezek uste du, kirola egiteaz gainera, turismoa ere egingo dutela Durangora datozenek.

Iaz Espainiako jubencil mailako txapelketa jokatu zen Durangon, eta urtebetera promesena dator. Hernandezek azaldu du laguntza jasotzen duten bitartean txapelketak antolatzen jarraituko dutela.



Ford A autoa iaz ere ikusi ahal izan zen Durangon.

Ford A eta Isetta auto klasikoak ikusteko aukera dago bihar, Landako Gunean

Auto klasikoak ibiliko dira Durangaldeko errepideetatik, Eskuko Racing klubak antolatuta

> AUTOAK Joseba Derteano
Durangoko Eskuko Racing klubak auto klasikoen laugarren erakustaldia antolatu du zaturako. Ordu batzuetan Landako erakustazokan egongo dira ikusgai, baina eguneko zatirik handienean eskualdeko errepideetatik ibiliko dira, erakusketa mugikor bat balitz bezala.

Izen-emateak kontuan hartuta, 50 bat auto batuko dira bihar, baina aurreko urteetan gertatu den moduan, "kopuru hori hazi egin daiteke azken unean batzen

direnekin", adierazi du Javat Morales klubeko presidentek. Auto guztiek dute bere berezitasuna, baina batzuek jendearen arreta gehiago erakartzen dute: esaterako, Ford A, Isetta, Seat 125 eta Seat 850 autoak ikusi ahaliko dira.

Auto guztiak Tabiran batuko dira, 09:00etan. Egun osoan hiru ibilaldi egingo dituzte. Lehenengo herrian bertan izango da, Durangotik irten barik. Handik Goiuriara joan, hamaiketako egin, eta bigarren ibilbideari

ekingo diote: Garai, Traña-Matiena, Zelaieta, Apata, Axpe, Apata eta Durango. Hirugarren ibilbidearen gaineko xehetasunik ez dute eman: "Sorpresaz ita gura dugu". Parte-hartzaileek Landako erakustazokan egingo dute bazkaria, eta han dauden bitartean (13:30-17:30) autoak gertutik ikusteko aukera izango du autozalea den edonork.

ORDUTEGIA

09:00 Ongietorria
Tabira parkean.

11:00 Lehen ibilbidea.

12:15 Bigarren ibilbidea.

13:30 - 17:30 Erakusketa, bazkaria eta sari banaketa Landako erakustazokan.

19:30 Hirugarren ibilbidea.



F3rako finantziazio bila dabil Urien, eta GTrako probak egingo ditu

Europako F3 Txapelketan jarraitu ahal izateko babesle berrien bila dabil; bitartean Drivex taldeak GT Sporteko Porsche RSR baten bolantea eskaini dio



Igor Urien, aurten parte hartu ahal izan duen lasterketan, F312aren barruan kontzentratuta.

► **MOTORRA** Joseba Derteano Auto lasterketen munduan talentuak bezain besteko garrantzia du diruak, eta aurten erreallitate hori gertutik ezagutzen ari da Igor Urien abadiñarra. Badu lehiatu ahal izateko taldea (Emilio de Villotarena), baina babesle batzuen sostengua galdu du, eta finantziazio bila dabil Europako F3 Txapelketan jarraitzeko. Bitartean beste aukera interesga-

rri bat aztertzen dabil: GT Sport Txapelketako Drivex Racing Teamek bere taldera batu gura du, eta uztailaren 11n Porsche 997 RSR bategaz probak egingo ditu. Eskaintza garrantzitsua da. Le Manseko 24 orduetarako diseinatu, horrelako bederatzi auto bakarrik daude munduan. Beraz, ate bat baino gehiago zabalik ditu automobilismoaren goi-mailan aurrera jarraitzeko.

AIC (Automotive Intelligence Center), Alko eta Abadiñoko Udalak, besteak beste, Urieni sostengua ematen jarraitzen dute, baina horrelako txapelketa batek gastu ugari eragiten du, eta babesle gehiago behar ditu. Interesatuentzako e-mail bat sortu dute: info@igorurien.com.

Orain arte Europako F3 Txapelketan lehiatu diren hiru lasterketetatik aurrenekoan baka-

rrik parte hartu ahal izan du. Aurreko egunean abisatu zioten Alemaniako Nurburgring zirkuituan egoteko baliabideak bazituela. Auto berria esku artean (maila nagusian F312az dihardu, eta ez iazko F308agaz) eta *set-up*erako ia astirik gabe, azkenengo irten, eta bederatzigarren amaitzea lortu zuen lehen proban. Hurrengo eguneko bigarren lasterketan, hamargarren irten, eta itzuli batean lider kokatu zen. Ondoren, *drive through* baten eraginez, ezin izan zion postu horri eutsi. Urienek denen aurrean erakutsi zuen baldintza desegokietan ere ehuneko ehuna eman dezakeela. Aukera sortzen denarako "beti bezain gogotsu" entrenatzen diharduela dio.

Lehentasuna F3an jarraitzea da, baina GT Sport Txapelketan aritzeko Drivex taldearen eskaintza ere aztertuko du; uztailaren 11n Porsche RSR bategaz probak egingo ditu. Egoera bere osotasunean aztertu ondoren hartuko du azken erabakia. Miguel Angel Castro gidari ohia da Drivex taldeko zuzendaria: "Urte batzuk daramatzat Igorren ibilerak jarraitzen. Bere adinerrako [19 urte] oso izaera heldua erakusten du. Askok entrenatzen du, oso arduratsua da, beti dago hiperzentratuta, eta oso pilotu arina da".

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Udan ere saskibaloia

Aurtengo denboraldi eder-rra eta gero, udan gaude, eta gure kirolaz gozatzeko aukera asko daude gure ume eta gazteentzat. Campusetan hainbat ekintza egiten dira saskibaloia oinarri izanda. Horrela, gure kirolaz gozatzeko dugu denok.

Durango, Tabirako bere VII. campusa eskaintzen ari da egunotan. Ia 200 neska-mutiko ari dira topera gozatzen, eta egunotan hainbat ekintza dituzte saskibaloia inguruan; eta ondoan: igerilekua, Durangoko hainbat toki eza-gutzeko aukera... Egun osoko ekintza da, eta bazkaldu ere bertan egiten da. Plan ederra!

Zornotza STk ere martxan dauka bere campusa, eta, lehenengo eta bigarren txandak beteta, hirugarren txanda zabalik dauka oraindik izena emateko; uztailaren 7tik 11ra izango da. Aurtengo denboraldi bikaina gozatu ondoren, David Querok zuzentzen du: "Campusaren helburua, udan umeek egun dibertigarri batzuk igarotzeaz gain, saskibaloian maila onenean entrenatzeko aukera izatea da, kalitatezko entrenamenduekin beraien trebetasunak hobetzeko. Jokoa ezagupen sakonago bat lortuz, eta banakako teknika eta jaurtiketak landuz beste gauza askoren artean". Aukera ederra, benetan.

Berriren ere bertako taldeak campusa antolatu du, jokalaria guztiek euren kirolaz gozatzeko eta entrenatzaileen formakuntza lantzeko. Hemen euskaraz arituko gara.

Udan gozatu saskibaloian denok. Gozatu gure kirola!

Mugarrako mendi hegaletik Sapubike martxa domekan

Durangoko Tabiran hasiko da martxa 09:00etan

► MARTXA J.D.

Domekan hirugarren aldia egingo du Durango MTB taldeak antolatzen duen Sapubike mendi bizikleta martxak. 09:00etan ipini dute hitzordua, Tabiran. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 08:00etatik aurrera. Internet bidezko izen-ematea amaituta dago eta 362 lagun apuntatu dira.

Ibilbide bi prestatu dituzte: 25 eta 31 kilometroko bana. Mugarrako mendi hegaletik zehar ibiliko dira parte-hartzaileak. Antolatzaileek jakinarazi dute-nez, ibilbidea iazko bera izango

da, aldaketa txiki batzuk izango baditu ere: igoeraren bat kendu, eta beste jaitsiera bat gehitu dute. Gogortasunik gehitu barik, ibilbide "dibertigarriagoa" egiten saiatu direla adierazi dute antolatzaileek. Hala ere, ibilbide "zorrotza eta teknikoa" izaten jarraitzen duela abisatu dute.

Martxa amaitzen denean, parte-hartzaile bakoitzari Sapubiken kamiseta bat oparituko diote; urtero legez, diseinu berri bat sortu dute aurtengo aldirako. Sari banaketaren ostean, askotariko erregaluak zotz egingo dituztela ere jakinarazi dute.



Bizkaia Kirola saria irabazi du Durango Kirol Klubak

Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen dituen Bizkaia Kirola sarietako bat Durango Kirol Klubak jaso du aurten. Beteranoen arloko atletismoaren alde egindako lana azpimarratu

zuen epaimahaiak, beste merituz batzuen artean. Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiaren eskutik jaso zuten saria joan zen astean egindako sari banaketa ekitaldian.

A. Urreta
podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Motorretan **motorra.**

➤ **EcoBoost motorra**

